

OSASUNAREN MUNDU ERAKUNDEA HASI BADA COVID-19A ARINDU LEZAKETEN BELARRAK AZTERTZEN

Euskal Herrian nekez aurkituko duzu medikurik osasun sistema publikoan COVID-19a prebenitzeko –are gutxiago jada sintomak baldin badituzu– gomendatuko dizunik belar edo bestelako erremedio naturalik, ez aipa homeopatia edo beste heresiak. Ez amestu Gizarte Segurantzak ordaintzea. Baina ez da berdin mundu guztian. Osasunaren Mundu Erakundea bera ere azkenean hasi da zenbait belarren propietateak ikertzen, Afrikarako, hori bai.

 PELLO ZUBIRIA KAMINO

2020ko maiatzean Osasunaren Mundu Erakundeak Afrikako jendeak ohartarazi zituen koronabirusarentzako tratamenduen artean belar tradizionalak erabiltzeaz: “Kontuz ibili behar da erremedio batzuen eraginkortasunaz batik bat sare sozialetan egiten den desinformazioarekin”. Aspalditik malariaren kontra erabili den artemisia afrikarrez (*Artemisia afra*) osatutako erremedioek sekulako olatua piztua zuten Madagaskarretik hasita kontinente osoan barrena. Irailean, ordea, OMEk oso bestelako tonu batean jakinarazi zuen: “Medikuntza Tradizionalari buruzko Adituen Eskualde Batzordeak adostu du protokolo bat froga klinikoen III. fasean aztertze COVID-19arentzako belarrezko erremedioak. Zehaztu ditu ere belar erremedioen frogatze klinikoei buruzko informazioak eta arriskurik eza bermatzeko neurriak”. Zerk eraman ote du OME iritziz aldatzera?

Adituei galdetu die Fatima Khan kazetariak Hego Afrikako *Roving Reporters* aldiakariak. Batzorde berriaren burua eta Hego Afrikako Estatu Askeko unibertsitatean Farmakologiako burua den Motlalepula Gilbert Matsabisak dio haien lanak jendeari bermatuko diola pandemiari aurre egiteko erremedio tradizionalak dauzkaten ahalmenei etekina ateratzea; eta Afrikan bederen COVID-19aren kontrako kanpaina aro pragmatikoago batean sartu dela, osasungintzan elkarren kontra borrokan ari ziren taldeak elkarlanean jarri.

Pandemiarekin gero eta jende gehiagok

zerabilen Afrikan artemisia (*Artemisia annua* eta *Artemisia afra*) eta apirilean Madagaskarreko lehendakari Andry Rajoelinak telebistaz herritarrei gomendatu zien artemisiaz egindako *Covid-Organics* edateko. OMEk lehendik onartuta dauka artemisia paludismoaren kontrako protokoloetan. Orain batzorde bereziak aztertu beharko du ea baduen COVID-19ari aurre egiteko ahalmenik eta zein baldintzatan. Mundu aberatsean ere ari dira artemisiarekin probatan, esaterako Alemanian Max Plank Institutua AEBetako ArtemiLife konpainiarekin.

Txinan ez dira OMEren zain egon. Txinako Medikuntza Tradizionalaren Administrazio Nazionala herrialde hartako Osasun Ministerioaren barne dago 1949tik geroztik. Txinako Alderdi Komunistaren agerkari ofiziala den *Herria Gaur* hedabideak (gaztelaniazko bertsioa ere badauka) martxoan titulu hau eman zion bere albiste bati: *COVID-19a tratatzeko 6 botika tradizional txinatar eraginkor*. Nagusiki belar eta landarez osatutako formulazioak dira, aurreko beste epidemietan eskuratutako esperientziagatik COVID-19arentzat ere erabiliak: *Jinhua Qinggan*, *Lianhua Qingwen*, *Xuebijing*, *HuaShiBaiDu*... Batzuk kasu arinetan erabili dituzte baina beste batzuk larrietan ere bai, bakarka edo “mendebaldeko medikuntzaren” (haien hitzetan) botikekin uztartuta. Alderdi Komunistaren agerkari zentrala den honek dioenez, Txinan koronabirus berriak harrapatu dituen gaixoetatik gehienek erremedio tradizio-

nalak ere erabili omen dituzte. Kuba da beste herrialde bat medizina mendebaldeko edo alopatikoaz gain, erremedio zahar, natural edota osagarriari ere erreparatu behar izan diona, Mendebaldeak blokeoarekin eskuraezin bihurtu zizkionetik gure artean ohikoak diren botika asko.

ESKUINAZ TXERTOIA, EZKERRAZ PROPOLIA

Uztailean Kubako Osasun Ministerioak *Plantas medicinales, medicamentos homeopáticos e inmunidad* tituluarekin azaldu zituen herritarrek eskueran dauzkaten botiketako batzuk. Adibidez, *Imefasma* izeneko formulazioaren ekoizpena eta kontsumoa zabaldu direla dio. *Imefasma* osatuta dago majaguaren (*Hibiscus elatus*) lorez, aloe veraz eta bananondoaren (*Musa paradisiaca*) zukuz.

Immunitatea sendotzeko aipatzen ditugurean ere hainbeste herritarrek erabiltzen duten ekinazea (*Echinacea purpurea*), “uña de gato” delakoa (*Uncaria tomentosa*) eta bereziki “añamu” delakoa (*Petiveria aliacea*): “Hau izango da ziurrenik –dio ohar ofizialak– Kubako Ikerketa Zientifikoaren Zentro Nazionalak hobekien aztertutakoa”. *Nutrisol* izeneko beste produktu bat ere aipatzen du, bananondoaren zukuz eta erleen propoli eta eztiz osatua.

Euskal Herrian osasungintzako ortodoxoak sutan jarriko lituzketen proposamen gehiago baditu Kubako osasun sistema publikoak: “Landarezko erremedioei gehitu behar zaizkie botika homeopatikokoak. He-



FARMAZIALARIA BELARREKIN

ERREMEDIOAK EKOIZTEN,
COVID-19A DAUKATEN
GAIXOENTZAKO, ANHUI
PROBINTZIako MEDIZINA
TRADIZIONAL TXINATARREKO
OSPITALE PUBLIKOAN,
2020KO OTSAILEAN.
(ARGAZKIA: BAI BIN/XINHUA)

rrialde guztian banatu da *PrevenoHo-Vir* COVID-19ari aurre egiteko estrategien barruan. (...) Produktu naturalen oinarritzko taulak bere baitan dauka *AliviHo-Inmune* ere, beste botika homeopatiko bat”.

Kubak, horiez gain, medikuntza alopatikoz artatzen ditu COVID-19 kasu ertain eta batik bat larrienak. Pandemiaren aurrean Habanak ezarritako protokoloak biltzen ditu bioteknologia industria kubatarrak manipulazio genetiko sortutako *Interferon alfa 2b* ezaguna eta *CIGB 2*, *Itolizumab* eta *Rocilizumab* antigorputz monoklonalak. Ahaztu gabe, garatze bidean daukan txerto propioa, *Soberana-2* bertsio berria.

Orain OMEk Afrikan artemisiarekin egin nahi duena –zientifikoki ikertu eta ebaluatzea– munduan beste asko aspalditik ari dira egiten erleen produktue-

kin, bereziki propoliarekin. Ez bakarrik kubatarrak. Abuztuan *Biomedicine & Pharmacotherapy* aldizkari zientifikoak David De Jong eta beste lau ikerlarik *Propolia eta bere potentziala SARS-CoV-2 infekzioaren mekanismoen eta COVID-19aren kontra* artikuluan idatzi dutenez, pandemiak handitu du erleek ekoiztutako erremedio horrekiko interesa mundu osoan, hasi AEBetatik eta Txina, Korea edo Japoniaraino.

Aurreko literatura zientifiko ugaria laburbilduz, ikerlanean nabarmendu dituzte landareen erretxin bioaktiboekin erleek ekoizten duten propoliak daukan bi ezaugarri garrantzitsu: alde bategatik, erakutsita daukala hainbat birusen kontrako eragina –hain zaila denean birusen kontrako erremediorik aurkitzea eta, bestetik, COVID-19arekin gaixoko

sufritu ditzakeen eraso inflamatorioak blokeatu ditzakeela.

De Jong eta besteen artikuluan bada mezu bat COVID-19ari aurre egiteko tresna bila ari diren ikerlarientzako, produktu naturalen estandarizazio faltak kezkatzen dituenentzako: “Estandarizatutako propoliak asko dira gaur munduan eta propietate egokiak dauzkate laborategirako eta erabilera klinikoetarako”.

Bigarren mezua, herritarrentzako, batik bat eraso larri baten zain egon barik prebentzioa egin nahi dutenentzako: “Ikusirik pandemia honen larritasuna eta horrentzako dauden aukera terapeutiko urriak, propolia da balio terapeutikoak dituen elikagai funtzional bat segurua, ahoz hartzen erraza eta eskueran dagoena”. Sute handi honetan bizirauteko, kontutan hartzekoa. ●

**ZINKUNEGI
OPTIKA**

Hernani 23 · 20004 Donostia
T. 943 420 624
info@zinkunegioptika.com
www.zinkunegioptika.com

f w